# Errekalde Gizarte Etxea

## + auzoa: berrantolak. 03

// eraikin industrial hiritarraren moldaketa

gral 2015 // josu aguilar medina // tut_ula iruretagoiena




### e1:5 000 // + etorbide berria (e1)

- trenaren lurperatzearekin batera espazio publiko handi baten sorrera ere pizten da. Lehen, trenbideak eta bi galtzadek bi auzo banatzen zituzten; orain, espazio honek erantzun bat behar du.

+ etorbide berri baten estrategia antolatu behar da.



### e1:5 000 // + plazaren beharra (e2)

- Errekalde barruti osoan plaza (biltzeko toki + espazio publiko) gutxi dago. Gainera, espazio hauek aldenduta daude.

+ etxe-irlaren kokapena pribilegiatua da alde horretatik, inguruko hiru espazio publikoen artean baitago. Hortaz, etxe-irlaren berrantolaketa kalitatezko espazio publiko batek osatu behar du.

### + analisia / estrategiak (p3t1)

+ jarraian, etxe-irla, eta ondorioz auzoa, berrantolatzeko bost ideia nagusiak deskribatzen dira. Ideia hauek analizatu diren arazoak konpontzeko eta auzoak kalitate handiagoa izateko sortu dira.

+ bost ideiatan berrantolaketa proposatzeko beharrak, aukerak eta helburuak deskribatzen dira.

+ azkenik etxe-irla berrantolaketaren proposa- mena ikus daiteke, dagokion azalpenarekin. Bertan, bost ideietan ateratako ondorioei erantzun bat ematen zaie.





### e1:2 500 // + etorbide + plaza (e3)

+ aurreko bi estrategiekin lotuta, plaza eta etorbide berriak sortzeko beharra dagoenez, bien sinergia proposatzen da espazio publikoa eraginkorragoa eta aberatsagoa izan dadin.





### e1:1 500 // + eraikina proposamenean (e4)

+ proposamena ez du modu isolatuan funtzionatuko. Berrantolaketaren etxe-irla osatzen duten eraikinek ere proposamena indartuko dute. Horretarako, eraikinak euren artean erlazionatuko dira, eta espazio publikoarekin gertatzen den bezala, hauek ere sinergia bat egingo dute.

### e1:2 500 // + sarrera berriak (e5)

- Rekaldeberri auzoak ez du apenas sarrerarik. Aurretik analizatu den bezala, gaur egun Gordóniz eta Camilo Villabaso kaleak dira sarrera bakarrak.

+ trenbidearen lurperatzeak aukerak sortzen ditu alderdi honetan. Hirigintzaren bitartez, berrantolaketak ere alderdi hau sustatu behar du.



### + etxe-irlaren berrantolaketa (t2)

+ proposamena plaza berri batek osatzen du nagusiki. Plaza, plataformetan antolatua kota aldaketak gainditzeko, trapezio forma du.

+ trapezio forma, egoitza eraikin berriak sortutakoa, hasieran azaldutako bostgarren ideia betetzeko sortu da (auzorako sarrerak erraztu). Baina, gainera, forma honek eraikin publiko berriaren [merkatua] fatxada nagusia protagonismo gehiago hartzea ere lortzen du.

+ proposamenaren bigarren elementu nagusiena Boulevard berri bat da, plazan amaitzen dena. Boulevard hau, etorbidearen parte dena, kalearen kota mailaren gainetik dago.

+ azkenik, gizarte etxeak, birgaitu beharreko eraikina, ere joko honetan parte hartzen du, bere barne kalearekin. Kale honek etxe-irlaren bi kaleak erlazionatu, auzorako sarrerak ahalbidetu eta ibilbide berriak sortzen ditu plazaren inguruan.




e1:750 // + oina (t2o1)




e1:750 // + ebaketa (t2eb1)